

## OINARRIAK

1. Lehiaketa honetan hiru maila izango dira:

<b>A</b>	<b>KATEGORIA</b>	<b>14 urtera bitartekoa</b>
<b>B</b>	<b>KATEGORIA</b>	<b>18 urtera bitartekoa</b>
<b>C</b>	<b>KATEGORIA</b>	<b>22 urtera bitartekoa</b>

Interpreteek izena emateko orduan duten adina da kontuan hartuko dena.

2. Lehiaketa **2010eko apirilaren 24an** ospatuko da. Izena emateko epea deialdi hau jasotzen duzuenetik **2010eko martxoaren 18ra** bitartekoa izango da.

3. Egitaraua librea izango da.

4. Izena emateko orriarekin batera (honekin batera bidaltzen dizuegu) ondorengo hauek aurkeztu beharko dituzue:

- Jaiotza agiria edo NAN.
- Taldearen oraintsuko argazki bat. **Originala, (digitala 13 x 17)**. Beharrezkoa da taldeari izen bat ematea izen horrekin identifikatu beharko baitzarete Kutxan dirua sartzean eta zuen partaidetza erregistratzean.
- Interpretatuko dituzuen lanen bi kopia. Originala eta konponketak dituen. Iraupena ere zehaztu egin beharko duzue baina hala ere, ezingo du bost minutu baino gehiago iraun, **C Kategoria** izan ezik, zortzi minutaraino luzatu baitugu, baina ezin izango dela inolaz ere denbora hori gainditu, hala gertatuz gero epaimahaiak zigorra jarri baitezake.
- Izena emateko orria behar beste aldiz fotokopiatuko da.
- Izena emateko orrian azaltzen diren partaideen izen-abizenak dira **Diploman** agertuko direnak.
- Talde bakoitzak eskatutako dokumentazioa gutunazal bakar batean bidaliko du. Bidaltzaile moduan taldearen izena agertuko da eta bat etorri beharko dira argazkia, dirua sartu dela dioen egiaztagiria eta herria.
- Izena emateko orrian zehaztu beharko da zein material behar duen taldeak: atrilak, aulkiak, anplifikadoreak, perkusioa etab.
- Talde bakoitzak 50 Euro sartu beharko ditu kontu korrante zenbaki honetan: KUTXA 2101 0036 61 0011571452.

Dokumentazio hau guztia helbide honetara bidali:

**“ELGOIBARKO HERRIA” Lehiaketa**  
**“Inazio Bereziartua” Musika Eskola**  
**Aita Agirrerren plaza, 4. - 20.870 Elgoibar**

Informazio gehiago:

Telf. : 943 742145 – Fax : 943 740362

E-mail : elgoibarmusika@terra.es

5.- **SARIAK**

A KATEGORIA	1. saria <b>270 €</b> 2. Saria <b>240 €</b> 3. saria <b>210 €</b>
B KATEGORIA	1. saria <b>330 €</b> 2. saria <b>300 €</b> 3. saria <b>270 €</b>
C KATEGORIA	1. saria <b>390 €</b> 2. saria <b>360 €</b> 3. saria <b>330 €</b>

6.-**Antolaketak hiru sari berezi emango dizkie hauei:**

<b>TALDE BAKOITZEKO INSTRUMENTU EZBERDINTASUNA</b>	<b>200 Euro</b>
<b>KONPONKETARIK ONENA</b>	<b>200 Euro</b>
<b>EPAIMAHIAREN SARI BEREZIA</b>	<b>200 Euro</b>

7.- Epaimahaia musika munduan aipagarriak diren pertsonak osatuko dute.

8.- Epaimahaiak aurkeztutako obren zailtasun maila kontuan izango du eta baloratu ere egingo du.

9.- Ahotza instrumentutzat hartuko da.

10.- **A KATEGORIA** atalean parte hartzen dutenek **laguntza** jaso ahal izango dute, izan liteke nagusi baten laguntza zuzendari lanetarako, piano jole laguntzaile batena etab.....bera ez dugu kontatuko taldean interpretari bezala. **Instrumentu taldeak lautik hamarrera interpretari izango ditu. Bi edo instrumentu desberdin gehiago izatea ez da izango beharrezkoa kategoria honetan.** (Adibide 4 flauta)

11.- **B eta C KATEGORIAN** instrumentu taldeak **lautik hamarrera interpretari izango ditu, eta bi edo instrumentu desberdin gehiago izan beharko ditu.** Ezin izango du kide batek ere bere talde horren mailarako jarritako adina gainditu.

12.- Partehartzaileek beraien adineko mailan edo goragoko mailan hartu ahal izango dute parte, baina inoiz ere ez maila baxuagoko talde batean.

13.- Aurreikusitako baino talde gehiagok ematen badu izena antolaketak sailkapen bat egingo du, eta kasu honetan ere aukeraketatik kanpo geratzen direnei izena ematean ordaindutako diru kopurua itzuli egingo zaie.

14.- Lehiaketara aurkezterik izango ez duten taldeei **martxoaren 25** baino lehen jakinarazteko "INAZIO BEREZIARTUA" Musika Eskolari eskatzen zaie izena ematean ordaindutako kopurua itzuli ahal izateko.

15.- Lehiaketa honetan parte hartuz gero oinarrietan jasotzen dena onartzen dela esan nahi du, eta baita epaimahaiaren erabakiei ez zaiela eragozpenik jarriko, edo ez dela erreklamaziorik egingo.

16.- Ekitaldi guztiak publikoak izango dira eta Elgoibarko **"INAZIO BEREZIARTUA" Musika Eskolako Auditorioan izango dira.**